



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

**Etxe Maitia, Autonomia Pertsonala Garatzeko Komunitate eta Egoitza  
Laguntzarako Udal Zentroa (Basauri)**

**Kautelaz etetea egonkortze-prozesuen barruan Erizaintzako Laguntzaile 4.3 kodea duen lanpostua betetzeko hautaketa-prozesua, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko lan arloko salak 2023ko urriaren 17an emandako epai irmoaren ondorioz. Epai horrek 4.3 lanpostua betetzen duen langilea finkotzat jotzen du.**

Presidente andreak, 2023ko azaroaren 17an, ebazpen hau onartu du, eta honako hau xedatzen du ebazpen-zatian:

*Lehena:* Kautelazko neurria hartzea Erizaintzako laguntzaile lanpostua (C2 azpitaldea, 4.3 kodea) betetzeko hautaketa-prozedura eteteko, eta hautaketa-prozesuarekin jarraitzea gainerako plazei dagokienez. Kautelazko etete-erabakia webgunean eta aldizkari ofizialetan argitaratu beharko da.

*Bigarrena:* Presidentearen ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Basauriko Udaleko webgunean argitaratzea.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan ematen da argitara hau.

Basaurin, 2023ko azaroaren 20an.—Kontseilu Errektorearen presidentea, María Larinaga Artetxe